



ZERGA ITUNDUEN DIRU BILKETA GIPUZKOAN 2018AN

1. Emaidza nagusiak

Gipuzkoan, 2018an, zerga itunduen bilketa 4.837,4 milioikoa izan da. Beraz, %3,6ko hazkundea izan da aurreko urtearekin alderatuta, 167,1 milioi euro gehiago bildu direlako: sarrera gordinak %4,1 handitu dira eta itzulketak %6,2. Zuzeneko zergak %9,6 handitu dira, zeharkako zergak %6,8 handitu dira, eta Estatuarekiko doikuntzak %26,2 jaitsi dira.

Aurrekontuaren betetze maila %103,6koa izan da, aurreikusi zena baino 167,0 milioi euro gehiago bildu direlako. Era berean, zerga-bilketa 65,5 milioi euro handiagoa izan da Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak (FPEK) 2018ko urriaren 11n aurreikusi zuena baino.

Zuzeneko zergen bilakaera metatua positiboa izan da, %9,6 handitu baita, 199,2 milioi gehiago. Bilakaera positiboa esplikatzeko, alde batetik, sarrerek ondoko kontzeptuetan izandako hazkundeak: lan atxikipenak, sozietateen gaineko zergaren kuota diferentziala, PFEZa, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga, eta ondare irabazien atxikipenak. Bestalde, zerga-bilketan eragin negatiboa izan dutenen artean aipatu behar da PFEZaren itzulketak hazi direla.

Zeharkako zergen bilakaera metatua positiboa izan da, %6,8 handitu baita, 129,5 milioi gehiago. Zerga-bilketan eragin positiboa izan dutenen artean gehien bat aipatu behar dira: aldundiak kudeatutako BEZaren sarrerak, BEZaren lurralde arteko doikuntzak eta zerga berezien sarrerak. Bestalde, zerga-bilketan eragin negatiboa izan dutenen artean aipatu behar da BEZaren itzulketak hazi direla.

Estatuarekin egiten den BEZaren doikuntzan 158,5 milioi euro gutxiago bildu dira. Azkeneko urteetan desadostasunak zeuden EA Eren eta Estatuaren artean kupoak zehazteko garaian. Horregatik Estatuak deskontuak egiten zituen BEZaren doikuntzetan, eta 2017an azken urteetako kupoak adostu egin ziren. Ondorioz, ezohiko sarrera bat gertatu zen, 197,3 milioi eurokoa, aurretik egindako deskontuei zegokiena.

Hona hemen zerga itunduen diru bilketa metatuaren laburpena, abendura arte:

GIPUZKOAKO ZERGABILKETA METATUA ABENDUAREN 31RA ARTE				
	2018	2017	aldea	%
Zergabilketa gordina	6.136.874	5.894.334	242.541	4,1
Itzulketak	1.299.509	1.224.109	75.400	6,2
Zergabilketa garbia	4.837.366	4.670.225	167.141	3,6
Aurrekontuaren betetze-maila	103,6%	106,7%	-3,1	

(Zenbatekoa mila eurokotan)

2. Kontzeptu nagusien bilakaera

Hona hemen zerga itunduen diru bilketa metatuaren laburpena abendura arte:

GIPUZKOAKO ZERGA-BILKETA METATUA ABENDUAREN 31RA ARTE

ZERGA KONTZEPTUA	ZERGA-BILKETA GORDINA			ITZULKETAK			ZERGA-BILKETA GARBIA		
	2018	2017	%	2018	2017	%	2018	2017	%
PFEZ	2.058.985.212	1.937.027.347	6,3	288.598.010	281.297.944	2,6	1.770.387.202	1.655.729.403	6,9
Sozietate Zerga	452.980.949	399.807.184	13,3	119.011.697	124.971.418	-4,8	333.969.252	274.835.766	21,5
Gainerako zuzeneko zergak	170.196.016	144.689.213	17,6	1.256.018	1.129.898	11,2	168.939.998	143.559.315	17,7
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	2.682.162.177	2.481.523.744	8,1	408.865.725	407.399.260	0,4	2.273.296.452	2.074.124.484	9,6
BEZ	2.043.757.188	1.876.727.672	8,9	696.253.982	639.345.366	8,9	1.347.503.206	1.237.382.306	8,9
Zerga bereziak	616.083.726	596.965.490	3,2	44.131.118	41.337.175	6,8	571.952.608	555.628.315	2,9
Gainerako zeharkako zergak	117.517.659	113.214.294	3,8	4.466.721	3.275.864	36,4	113.050.938	109.938.430	2,8
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	2.777.358.573	2.586.907.456	7,4	744.851.821	683.958.405	8,9	2.032.506.752	1.902.949.051	6,8
TASAK GUZTIRA	48.177.703	34.622.229	39,2	5.860.474	4.694.549	24,8	42.317.229	29.927.680	41,4
KUDEAKETA PROPIOA GUZTIRA	5.507.698.454	5.103.053.430	7,9	1.159.578.020	1.096.052.214	5,8	4.348.120.434	4.007.001.215	8,5
BEZen doikuntzak guztira	597.243.597	757.881.086	-21,2	7.780.420	9.915.776	-21,5	589.463.177	747.965.310	-21,2
Zerga berezien doikuntzak	31.932.405	33.399.286	-4,4	132.150.430	118.141.079	11,9	-100.218.025	-84.741.793	
GUZTIRA	6.136.874.456	5.894.333.802	4,1	1.299.508.870	1.224.109.069	6,2	4.837.365.586	4.670.224.732	3,6

a. PFEZ

Lan etekinen atxikipenak %5,5 hazi dira aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 83,7 milioi euro gehiago jaso dira aurtan.

Ondare irabazien atxikipenak 10,9 milioi handitu dira eta kapital higikorren etekinen atxikipenak 4,6 milioi (kontzeptu horiek PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren artean banatzen dira, erdibana).

Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia 3,9 milioi gutxitu da eta ordainketa zatikatuak 4,2 milioi handitu dira.



Kuota diferentzialaren itzulketak 8,1 milioi handitu dira eta sarrerak 30,0 milioi.

Osagai guztiak kontuan izanik, PFEZaren zerga-bilketa garbia %6,9 handitu da, hau da, 114,6 milioi euro.

b. Sozietateen gaineko zerga (kuota diferentzial garbia)

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzial garbia 50,3 milioi handitu da aurreko urtearekin alderatuta. Bariazio horrek bi osagai ditu: batetik, ordainketa zatikatuen sarrerei esker, sarrera gordinak 44,7 milioi handitu dira; eta bestetik, itzulketak 5,6 milioi jaitsi dira.

c. BEZ (Aldundiek kudeatua)

BEZari dagokionez, gipuzkoarrek ordaindutako BEZa lurralde arteko doikuntzen bidez berreskuratu ondoren, zerga-bilketa metatua %8,9 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 110,1 milioi euro gehiago bildu da.

BEZaren zerga-bilketak osagai hauek ditu:

- Gipuzkoako sarrerak %5,3 handitu dira, 79,8 milioi gehiago.
- Gipuzkoako itzulketak %8,9 handitu dira, 56,9 milioi gehiago.
- Lurraldeen arteko doikuntzak %24,3 handitu dira, 87,2 milioi gutxiago.

d. Zerga bereziak

Hidrokarburoen gaineko zergaren bilketa %2,6 handitu da, 11,0 milioi euro gehiago, eta tabako laboreen gaineko zergaren bilketa %4,7 handitu da, 5,3 milioi euro gehiago.

e. Estatuarekin doikuntzak

Estatuarekin egiten diren doikuntzetan bilketa metatua, joan den urteko epe beraren aldean, 158,5 milioi okertu da BEZean eta 15,5 milioi zerga berezietan.

Estatuarekin egiten diren doikuntzetan azpimarratu behar da: BEZaren inportazioen aurreko urteko likidazioa 21,1 milioi jaitsi dela, BEZaren inportazioen hiruhilekoak 39,8 milioi hazi direla, BEZaren barne eragiketen hiruhilekoak 17,9 milioi hazi direla, hidrokarburoen gaineko zergaren aurreko urteko likidazioa 14,2 milioi gehiago ordaindu dela, eta 2017an ezohiko sarrera bat aplikatu zela, 197,3 milioi eurokoa, 2016. urtera arteko kupoaren desadostasunengatik.

- Azkeneko urteetan desadostasunak zeuden EA Eren eta Estatuaren artean kupoak zehazteko garaian, eta horregatik Estatuak deskontuak egiten zituen BEZaren doikuntzetan. 2017an aurreko urteetako kupoak adostu ziren eta ia zoko zerga-bilketa nabarmen handitu zen. Horregatik, urtean zehar, 2018ko eta 2017ko zerga-bilketaren datuak ez dira izan homogeneoak.
- Aipatutako 2017ko 197,3 milioiko zerga-bilketak hiru osagai dauzka: alde batetik, 11,9 milioiko zerga-bilketa likidoa; bestaldek, 78,2 milioiko zerga-bilketa kupoaren hazkundearekin konpentsatu zena; eta hirugarrenik, 2017ko azaroan 107,1 milioiko sarrerak Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2017ko urriaren 11n erabakiaren ondorioz.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

ERANSKINA

**GIPUZKOAKO
ZERGA-BILKETA METATUA
ABENDUAREN 31RA ARTE**

GIPUZKOAKO ZERGABILKETA METATUA ABENDUAREN 31RA ARTE

ZERGA	ZERGABILKETA GORDINA			ITZULKETAK			ZERGABILKETA GARBIA			BETETZE-MAILA	
	2018	2017	%	2018	2017	%	2018	2017	%	2018	2017
Lan etekinen atxikipenak	1.618.365	1.535.070	5,4	2.212	2.648	-16,5	1.616.154	1.532.422	5,5	103,1	101,1
Kap.higikorraren etekinen atxikipenak	50.416	48.460	4,0	346	717	-51,8	50.070	47.744	4,9	92,5	102,7
Kap.higiezinaren etekinen atxikipenak	27.281	26.261	3,9	58	40	45,7	27.223	26.221	3,8	100,1	100,1
Ondare irabazien atxikipenak	25.522	20.081	27,1	110	135	-18,8	25.412	19.946	27,4	144,4	136,6
Loteria eta apostu jakin batzuen gaineko karga berezia	6.535	10.483	-37,7	0	0		6.535	10.483	-37,7	108,9	102,8
Profesionalen ordainketa zatikatuak	25.735	24.054	7,0	15	22	-29,5	25.720	24.032	7,0	103,7	103,6
Enpresariaren ordainketa zatikatuak	38.603	36.080	7,0	23	33	-29,5	38.579	36.047	7,0	103,7	103,6
Kuota diferentzial garbia	266.528	236.538	12,7	285.834	277.703	2,9	-19.306	-41.165			
PFEZ, guztira	2.058.985	1.937.027	6,3	288.598	281.298	2,6	1.770.387	1.655.729	6,9	104,7	102,9
Kap.higikorraren etekinen atxikipenak	50.416	48.460	4,0	346	717	-51,8	50.070	47.744	4,9	92,5	102,7
Kap.higiezinaren etekinen atxikipenak	27.281	26.261	3,9	58	40	45,7	27.223	26.221	3,8	100,1	100,1
Ondare irabazien atxikipenak	25.522	20.081	27,1	110	135	-18,8	25.412	19.946	27,4	144,4	136,6
Loteria eta apostu jakin batzuen gaineko karga berezia	0	0		0	0		0	0			
Kuota diferentzial garbia	349.762	305.005	14,7	118.498	124.080	-4,5	231.264	180.925	27,8	119,5	118,2
Sozietateen gaineko Zerga, guztira	452.981	399.807	13,3	119.012	124.971	-4,8	333.969	274.836	21,5	114,2	114,3
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga	55.760	47.113	18,4	528	303	74,3	55.231	46.810	18,0	118,0	102,0
Aberastasunaren eta Fortuna Handien g/zerga	79.156	67.242	17,7	169	278	-39,3	78.987	66.963	18,0	114,1	88,2
Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga	16.004	11.924	34,2	509	523	-2,7	15.495	11.401	35,9	121,1	94,2
Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko zerga	7.658	7.581	1,0	0	0		7.658	7.581	1,0	96,9	96,0
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/zerga	11.619	10.828	7,3	50	25	99,3	11.569	10.803	7,1	107,7	91,7
I. KAPITULUA, GUZTIRA.- ZUZENEKO ZERGAK	2.682.162	2.481.524	8,1	408.866	407.399	0,4	2.273.296	2.074.124	9,6	106,7	103,6
BEZ (Aldundiak kudeatua)	2.043.757	1.876.728	8,9	696.254	639.345	8,9	1.347.503	1.237.382	8,9	101,8	96,4
Ondare Eskualdaketan gaineko Zerga	60.400	60.390	0,0	304	253	20,2	60.096	60.137	-0,1	107,7	113,9
Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	17.377	16.272	6,8	244	95	155,9	17.134	16.177	5,9	106,4	102,4
Zenbait Garraibideren gaineko Zerga	9.106	7.565	20,4	296	90	228,9	8.810	7.475	17,9	119,1	116,8
Alkohola eta edari deribatutak	3.428	5.950	-42,4	1.923	3.647	-47,3	1.506	2.303	-34,6	49,9	66,2
Bitarteko produktuak	189	120	57,9	101	60	70,1	88	60	45,8	147,2	101,9
Hidrokarburoak (tasa autonomikoa salbu)	430.103	419.159	2,6	221	267	-17,2	429.882	418.892	2,6	97,1	98,9
Hidrokarburoak, tasa autonomikoa	438	814	-46,1	563	346	62,6	-125	468			13,9
Tabako laboreak	154.577	145.192	6,5	37.648	33.554	12,2	116.929	111.638	4,7	98,4	93,7
Garagardoa	2.507	2.303	8,9	1.355	1.360	-0,4	1.152	943	22,2	111,1	87,0
Elektrizitatea	24.841	23.428	6,0	2.319	2.103	10,3	22.521	21.324	5,6	101,5	93,4
Zerga bereziak, guztira (Aldundiak kudeatutak)	616.084	596.965	3,2	44.131	41.337	6,8	571.953	555.628	2,9	97,1	96,8
Hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga	208	312	-33,4	3.475	2.817	23,3	-3.267	-2.505			
Aseguru Primaren gaineko Zerga	25.642	24.720	3,7	2	0		25.640	24.720	3,7	98,6	100,1
Joku jardueraren gaineko zerga	2.295	1.865	23,1	36	1	5.155,6	2.259	1.864	21,2	113,0	109,7
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga	1.939	2.091	-7,3	0	20	-97,6	1.938	2.071	-6,4	92,3	112,0
Bestelako zerga iraungiak	550	0		110	0		440	0			
II. KAPITULUA, GUZTIRA.- ZEHARKAKO ZERGAK	2.777.359	2.586.907	7,4	744.852	683.958	8,9	2.032.507	1.902.949	6,8	100,7	97,2
Bingoa	1.258	1.271	-1,1	0	0		1.258	1.271	-1,1	89,8	97,8
Makinak eta aparatu automatikoak	9.866	9.456	4,3	130	5	2.285,4	9.736	9.451	3,0	100,4	99,5
Kasinoak eta bestelakoak	2.104	1.778	18,4	0	0		2.104	1.778	18,4	110,8	98,8
Jokoaren gaineko tasa, guztira	13.228	12.505	5,8	130	5	2.285,4	13.098	12.500	4,8	100,8	99,2
Luzapen eta premiamenduzko errenergua	7.461	6.420	16,2	243	592	-58,9	7.218	5.828	23,8	116,4	98,8
Berandutza interesak	7.341	7.246	1,3	2.363	1.240	90,6	4.977	6.007	-17,1	60,0	72,4
Isunak	20.148	8.451	138,4	3.125	2.858	9,3	17.024	5.593	204,4	549,2	48,6
III. KAPITULUA, GUZTIRA.- TASAK	48.178	34.622	39,2	5.860	4.695	24,8	42.317	29.928	41,4	138,3	78,1
ALDUNDIAK KUDEATUT.ZERGA ITUNDUAK	5.507.698	5.103.053	7,9	1.159.578	1.096.052	5,8	4.348.120	4.007.001	8,5	104,0	100,2
BEZaren doiketak: Aduanak-Inportazioak	369.813	361.247	2,4	0	0		369.813	361.247	2,4	101,5	126,5
Barne eragiketak	227.431	396.634	-42,7	7.780	9.916	-21,5	219.650	386.718	-43,2	101,5	215,3
BEZAREN DOIKETAK, GUZTIRA	597.244	757.881	-21,2	7.780	9.916	-21,5	589.463	747.965	-21,2	101,5	160,8
Alkohola, deribatutak eta bitartekoak: inportazioak	66	86	-23,8	1	0		64	86	-25,6	77,9	110,1
Alkohola, deribatutak eta bitartekoak: barne erag.	14.892	13.435	10,8	0	0		14.892	13.435	10,8	100,1	94,9
Hidrokarburoak: inportazioak	14	1	914,2	0	0		14	1	912,3	680,9	73,9
Hidrokarburoak: barne eragiketak (tasa aut. salbu)	0	0		129.019	113.283	13,9	-129.019	-113.283			
Hidrokarburoak: barne eragiketak (tasa autonomikoa)	140	5	2.760,5	87	638		53	-634			
Tabako laboreak	9.951	14.110	-29,5	3.040	4.219	-27,9	6.911	9.890	-30,1	65,2	97,9
Garagardoa: inportazioak	78	79	-1,1	2	0		76	79	-3,5	97,4	105,9
Garagardoa: barne eragiketak	6.792	5.683	19,5	0	0		6.792	5.683	19,5	117,5	103,3
ZERGA BEREZIEN DOIKETAK, GUZTIRA	31.932	33.399	-4,4	132.150	118.141	11,9	-100.218	-84.742			
EFPK-RI ATXIKITAKO SARRERAK, GUZTIRA	6.136.874	5.894.334	4,1	1.299.509	1.224.109	6,2	4.837.366	4.670.225	3,6	103,6	106,7

(Zenbatekoa mila eurokotan)